



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

EUSKAL ADJEKTIBOZKO ADBERBIOAK AZTERGAI

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Agirre Ibarra, Xabier

GRADUA: Euskal Ikasketetako Gradua

SAILA: Aldakortasun sintaktikoa aztergai: euskara eta beste hizkuntza batzuk

ZUZENDARIA: Fernández Fernández, Beatriz

2016-2017 ikasturtean: Ekaineko deialdia

LABURPENA

Lan honetan, *adjektibozko adberbioen* jokabide sintaktiko eta semantikoa izango dut aztergai. Adjektibozko adberbioak deritzet inolako morfemaren laguntzarik gabe, adberbio gisa ageri diren adjektiboei.

Euskara ez da, jakina, halakoak dituen hizkuntza bakarra. Gaztelaniaz eta ingelesez ere lekukotzen dira, beste hizkuntza batzuen artean. Gaztelaniaz oro har *adverbios adjetivales* deitu izan dira eta ingelesez, *adjectival adverbs*. Lan honetan, Fábregas eta Alexeyenko-ren (2016) lana baliatuko dut adjektibozko adberbioek gaztelaniaz eta ingelesez nola jokutzen duten ikusteko eta euren azterbidea euskarara ekartzeko.

Gaztelaniaz eta ingelesez, Fabregas eta Alexeyenko-k (2016) *-mente* atzizkidun moduzko adberbioekin eta bigarren mailako predikatuekin konparatzen dituzte adjektibozko adberbioak. Azaleko antzekotasunak egon arren, desberdintasun semantiko eta sintaktikoek iradokitzen dute adjektibozko adberbioak beste zerbait direla. Fábregas eta Alexeyenkoren (2016) arabera, adjektibozko adberbioak determinatzaile sintagmak (DetS) dira; moduzko adberbioak, aldiz, preposizio sintagmak (PrepS). Alabaina, ez dira nolana hiko DetSak, izaera berezikoak baino. Izan ere, izen nuludun DetSak dira, Det burua ere hutsik izan behar dutenak. Kokapen sintaktikoari dagokionez, aditzaren osagarri gunean kokatzen dute DetS hori eta horrek zenbait jokabide azaltzeko balioko du.

Bestalde, euskaraz moduzko adberbioen eta adjektibozko adberbioen artean ez dago ia alderik. Horregatik, biak ala biak kategoria berean kokatzea proposatuko dut nik lan honetan. Batik bat jokabide sintaktikoak erakusten du euskal adjektibozko adberbioa ez dela osagarri bat, adjuntu bat baizik. Izan ere, perpausean kokaleku desberdinetan eta aditzetik urrun agertzeko aukeratu dute eta ez dituzte aditzaren osagarriak izan daitezkeen sintagmak oztopatzen. Jokabide sintaktiko hauek azaltzeko modurik onena euskaraz adjektibozko adberbioak postposizio sintagmak (PostS) direla proposatzea ematen du: *-ki* atzizki nuludun PostS, Post burua eta Det burua ere nuluak dituen sintagma bat.

Fábregas eta Alexeyenkorekin (2016) bat etorritz, *-ki* atzizkidun moduzko adberbioak PostSak dira euskaraz ere. Moduzko adberbio hauek, adjektibozko adberbioek ez bezala, eratorpenezko atzizkia agerikoa dute. Eta hori da diferentzia

bakarra, izan ere, hauek ere Post eta Det buruak nulu izatea behar dute. Proposamen honen alde esan beharra dago moduzko adberbio bezala PostS arrunt ugari erabiltzen ditugula.

AURKIBIDEA

1. Atarikoa.....	5
2. Adjektiboak eta adberbioak bereizten.....	5
2.1. Adjektiboak.....	6
2.2. Adberbioak.....	7
2.2.1 Moduzko adberbioak.....	9
2.2.1.1 Eratorpenezko moduzko adberbioak.....	9
3. Adjektibozko adberbioak.....	11
4. Gaztelaniazko eta ingelesezko adjektibozko adberbioak.....	13
4.1. Jokabide sintaktikoa.....	14
4.2. Jokabide semantikoa.....	18
4.3. Analisi sintaktiko-semantikoa.....	19
4.4. Kategorizazioa.....	24
4.5 <i>Rápido</i> eta <i>igual</i> adberbioen kasua.....	27
5. Euskal adjektibozko adberbioak.....	28
5.1. Jokabide sintaktikoa.....	28
5.2. Jokabide semantikoa.....	29
5.3. Analisi sintaktiko-semantikoa.....	31
5.4. Kategorizazioa.....	32
6. Ondorioak.....	34

1. Atarikoa

Euskaraz adjektibozko adberbioen inguruko azterketen gabezia ikusita, lan honen helburua adberbio mota honen azterketa xeheago bat egitea da. Horretarako, batez ere Fábregas eta Alexeyenkok (2016) ingelesezko eta gaztelaniazko adjektibozko adberbioez esaten dutena euskarara ekar ote daitekeen ikertuko dut.

Adjektibozko adberbioen ezaugarri nagusienetako bat aditzekin daukaten lotura estua da. Horregatik, Fábregas eta Alexeyenkok (2016) adjektibozko adberbioak DetSak direla proposatuko dute, eta beraz, aditzaren osagarriak. Lan honetan, euskarazko adjektibozko adberbioentzat analisi desberdin bat proposatuko dut, izan ere, euskaraz erakusten duten jokabide sintaktiko eta semantikoa gaztelaniaz eta ingelesez ez bezalakoa da. Euskaraz adjektibozko adberbioak PostSak direla proposatuko dut.

Helburu hori betetzeko, lehenik eta behin, 2. atalean, euskal adjektibo eta adberbioen arteko desberdintasun formalak azalduko ditut, baita moduzko adberbioen ezaugarriak aurkeztu eta hauek sortzeko ditugun baliabideak erakutsi ere. Ondoren, 3. atalean, orain arte euskal gramatikek adjektibozko adberbioez diotena azalduko dut. 4. atalean, gaztelaniazko eta ingelesezko adjektibozko adberbioen azterketa zehatz bat aurkeztuko dut eta gero, 5. atalean, azterketa bera euskarara ekartzean lortzen diren datuak azaldu eta atera daitezkeen zenbati ondorio proposatuko ditut. Bukatzeko, lanaren ondorioei egingo diet tarte 6. atalean.

2. Adjektiboak eta adberbioak bereizten

Adjektiboa eta adberbioa ezberdintzea ez da beti lan erraza izaten. Euskaltzaindiak (2002: 134) dioen bezala, batzuetan testuinguru morfologiko edo sintaktikoaren arabera erabaki behar izango dugu hitz bat adjektiboa ala adberbioa den, forma alde batera utziz. Ezberdintasun sintaktikoak normalean erraz antzeman daitezkeen arren, euskaraz oso oparoa da eratorpen atzizkien bitartez adjektiboak adberbio bilakatzea edo adberbio bat atzizki baten laguntzaz izen bat modifikatuz agertzea.

Euskal gramatika zenbaitetan (adibidez, Euskaltzaindia 1991, *Sareko Euskal Gramatika*), adberbioak eta adjektiboak era bertsuan sailkatu izan dira. Euskaltzaindiak (1991) bi kategorientzat bi azpisail sortu zituen irizpide berbera erabiliz: adjektiboak, izenondo eta izenlagun; adberbioak, aditzondo eta adizlagun. Irizpide horren arabera,

izenlagunak eta adizlagunak postposizio atzizki baten laguntzaz bakarrik beteko lukete adjektibo edo adberbio funtzioa. Horregatik, izenlagunak eta adizlagunak PostS bezala azaltzen dira egun, nahiz eta aditzondoan (adberbio) eta izenondoan (adjektibo) funtzio bera bete.

Atal honen helburua adjektibo eta adberbioen artean dauden antzekotasunak eta batez ere desberdintasunak aurkeztea da. Adjektiboazko adberbioek bi kategoria hauen arteko nahasmena sor dezakete eta horregatik komeni da lehenago bi kategorien ezaugarriak ondo bereiztea.

2.1. Adjektiboak

Adjektiboen zeregin nagusia izenaren erreferentzia intenzionala murriztea edo zehaztea da. Euskaltzaindiak (2002: 116) azaltzen duen moduan, bi kokapen sintaktikotan topatzen ditugu adjektiboak: izen sintagma baten barruan izen bati lagunduz edo predikatuan osagarri predikatibo bat osatuz.

- (1) a) Gizon altu bat etorri zaigu.
- b) Paisaia ederra da.

Adjektibo sintagma (AdjS)¹ bat predikatuan topatzeko loturazko aditz bat beharrezkoa da. Esaterako, (1b) adibidean *izan* aditza daukagu. Loturazko aditz honek osagarri predikatiboa (*ederra*) eta subjektua (*paisaia*) lotzen ditu.

ISen barruan adjektiboa izenaren eskuinetara aurkituko dugu gehienetan, izenari buruzko ñabardurak emanez. (1a) adibidean, *altu* adjektiboa daukagu izenaren (*gizon*) eskuinetara, subjektua nolakoa den zehaztuz. Hala ere, adjektibo batzuk izenaren ezkerretara ager daitezke, adibidez *-tar* eta *-dun* atzizkien bitartez sortutako adjektiboak –ikus (2a) eta (2b) hurrenez hurren–. Izen bat, gainera, adjektibo bat baino gehiagorekin ager daiteke erreferentzia gero eta gehiago murriztuz (2b)-n bezala:

- (2) a) Begi-urdundun emakumea hurreratu zitzaidan.
- b) Bilbotar lagun ausart txiki dotorea etorri zaigu.

¹ Laburdurak: Adj = adjektiboa; Det = determinatzailea; Post = postposizioa; Adb = adberbioa; I = izena; A = aditza; Prep = preposizioa; S = sintagma.

Euskaltzaindiak (1991: 163) honako adjektibo motak bereizten ditu formaren arabera: *bakunak* (*polit, zuri, beltz, gaizto, handi...*), *eratorriak* (*beldurti, negargarri, haizetsu, erasokor...*) ala *elkarketa bidezkoak* (*eskuzabal, buruhandi, betoker, zuri-gorri...*).

Bestalde, AdjSetan inguratzaile gutxi batzuk aurkitu ohi dira. Inguratzaile posible horietako bat *maila-adberbioak* dira. Maila-adberbioak adjektiboaren ezkerretara kokatzen dira, izen sintagmen barruan [Adb + I + Adj] hurrenkera osatuz (Euskaltzaindia 1991: 181): *guztiz liburu aproposa erosi dizut*. Maila-adberbio gehienek nahikotasuna edo goi-maila adierazten dute, hona hemen, adibide batzuk: *oso, biziki, erabat, aski, arras, nahiko, guztiz, hain...*

Azkenik, adjektiboek adierazten dutena mailakatzeko beste zenbait bide ere baditu euskarak (Euskaltzaindia 1991: 179): superlatiboa (*-en*), konparatiboa (*-ago*) edo gehiegizkotasuna (*-egi*) adierazten duten atzizkiak, adjektiboa errepikatzea (*gogor-gogorra*) edo atzizki txikigarri eta handigarriak (*-txo, -ño -xka...*).

2.2. Adberbioak

Adberbioen betebeharra adjektiboenarena ez bezalakoa da. Adjektiboek izenak modifikatzen badituzte eta haien buruzko informazio gehigarria ematen baldin badigute, adberbioek aditzak edo predikatuak modifikatzen dituzte. Euskaltzaindiaren (1991) esanetan, adberbioak aditzaren inguruko elementuak dira, nahiz eta batzuetan bazterreko elementu sintaktikoak diruditen periferia sintaktikoan agertzen direnean eta ez aditzaren aldamenean.

Adjektiboek ez bezala, adberbioek ez dute determinatzailezik ezta mugatzailezik onartzen eta postposiziorik ia ere ez, nahiz eta baten bat har dezaketen. Euskaltzaindiaren (1991: 314) arabera, har ditzaketen postposizio ohikoenak hauek dira: *-tik* (*-danik*), *-ra*, *-ko*, *-rako*, *-raino*. Postposizio hauek, ordea, leku-denborazko adberbioekin baino ez ohi dira agertzen. Zenbait adberbiok, hala ere, iharturik dituzte postposizio markak, adibidez *inoiz* adberbioan instrumentala antzeman daiteke eta *aurtenen* inesiboa.

Betebehar semantiko eta sintaktikoak desberdinak izan arren adjektibo eta adberbioen artean, adberbioek eta adjektiboek mailakatuak izateko zenbait baliabide partekatzen dituzte. Maila-adberbioek esaterako, adjektiboak ez eze, adberbioak ere

mailakatu ditzakete: *nahiko goiz heldu naiz*. Bestalde, adberbio batzuek gradu markak ere onartzen dituzte: *beranduegi, ederkiago, azkarren...*

Adberbioen zeregina ez da izenak modifikatzen agertzea, lehen esan dudan moduan, zeregin hori adjektiboena da. Hala ere, atzizki baten laguntzaz adberbioak betebeharrak hori betetzen jar daitezke. Hualderen (2003: 150) arabera, oso arrunta eta ohikoa da adberbioek *-ko* atzizkia hartzea izenak modifikatzera pasatzeko: *gaurko laguna, horrelako gezurra, zirt edo zarteko jokalaria...* Baliabide honek muga semantikoak baino ez ditu.

Formari dagokionez, adberbio guztiek ez dute itxura formal bera erakusten eta osatzen dituzten osagaien arabera sailkapen formal bat lor daiteke (Euskaltzaindia 1991: 315). Adberbioak bakunak (*beti, gero, gaur...*), eratorriak (*ederki, horrela, ederto, isilik, luzaro...*) ala konposatuak (*edonon, inoiz, herenegun...*) izan daitezke. Hitz asko adberbio gisa ere lexikalizatu dira, batzuk erabat, *orduan, gainera, noiz, berriz* eta *aurten* esate baterako. Beste batzuk *adberbiotze* erabateko horren erdibidean lirarteke, Euskaltzaindiak (1991: 317) adierazten duenez: *aurrera, oinez, berritan, txarrez, zuzenean...* Beraz, lexikalizatze prozesuaren mailak zehazten du askotan hitz bat AdbS edo PostS den.

Adberbioen eduki semantikoari dagokionez, Euskaltzaindiak (1991: 321) sailkapen semantiko hau proposatzen du, denek ez baitute eduki mota bera eransten ezta aditzarekiko portaera berbera erakusten. Sailkapen horretan, ondoko adberbio mota hauek bereizten dira: *denbora-adberbioak, leku-adberbioak, modu-adberbioak* eta *iritzi-adberbioak*. Denbora-adberbioek noiz galderari erantzun ohi diote: *edonoiz, laster, gaur, berriki, aspaldi, orain, urtero, igandero...* Leku-adberbioek, aldiz, lekuari buruzko ñabardurak gehitzen dituzte: *hemen, hor, edonon, nonahi, hurbil, urrun...* Iritzi-adberbioek hiztunaren jarrera adierazten dute: *agian, beharbada, nonbait, itxuraz...*

Moduzko adberbioak hurrengo atalean sakonkiago aztertuko ditut, izan ere adjektiboena eta adberbioen arteko lotura sail honetan nabarmenagoa da. Adjektibozko adberbio gehientsuenak gainera, sail honetakoak dira.

2.2.1. Moduzko adberbioak

Moduzko adberbioen galdegaia *nola* izan ohi da. Mota honetako adberbioek aditzarekiko lotura handiagoa erakusten dute besteekin alderatuz (Euskaltzaindia 1991). Formari dagokionez, era askotako moduzko adberbioak ditugu euskaraz: elkartu zehaztugabeak (*edonola, nolanahi...*), erakusleak, eratorriak, adjektibozko adberbioak eta moduzko esaera adberbialak. Eratorpen atzizkien bitartez sortzen ditugun moduzko adberbioek, hurrengo atalean azalduko dudan bezala, berebiziko garrantzia hartzen dute adjektibozko adberbioez aritzean.

2.2.1.1. Eratorpenezko moduzko adberbioak

Moduzko adberbio eratorri gehientsuenak adjektiboei eratorpen atzizki bat gehituaz sortzen dira. Eratorpen atzizki hauek honakoak dira: *-ki, -to, -ro, -ka, -roki*. Hala ere, izenak edo aditzak ere adberbiotu daitezke.

-Ki atzizkia da atzizkirik emankorrena; adjektiboak adberbiotzeko gehien erabiltzen dena. Horren emankorra da non *-ki*-dun adberbio batzuk esanahi desberdinekin lexikalizatu dira, adibidez, *poliki* eta *ederki*. De Rijk-ek (2008: 235) zerrenda luze bat ematen du, *-ki* atzizkidunez. Hona hemen adibide batzuk: *alaiki, alferki, ankerki, dotoreki, arinki, erosoki, ergelki, lazki, normalki, xeheki, zitalki...* *-Tu* partizipiodun aditz gutxi batzuek ere har dezakete atzizki hau adberbio bihurtzeko. Hala ere, ez dira euskara batuan oso ohikoak: *deliberatuki, izendatuki, itsutuki, lehiatuki, markatuki, ohartuki...* Bestalde, oso arraroa da izen bat *-ki* bidez adberbio bilakatzea (*anaiki, gizonki*), normalagoa da *-z* atzizki instrumentala daramaten adjektibo eta izenei gaineratzea: *bidezki, egiazki, luzazki, ohorezki...*

De Rijk-ek (2008: 233) dakarren moduan, *-to* atzizkia izango litzateke mugatuena. *Ondo* adberbioaz aparte, dozena bat adjektiborekin baino ez da topatzen (*eder-to, txar-to, poli-to*) eta mendebaldeko euskalkietan ohikoagoa omen da.

-Ro atzizkiari dagokionez, bokalez amaitzen diren adjektiboei baino ezin zaie erantsi zuzenean. Batez ere *-e* amaieradunei eransten zaie atzizki hau: *emaro, luzaro, zeharo...* Kontsonantez amaitzen diren adjektiboek *-ki* atzizkia eskatzen dute *-ro* atzizkia hartu ahal izateko, *-kiro* atzizki konplexua sortuz: *epelkiro, samurkiro*. *-Ro* atzizkiaz sortzen diren beste adibide zenbait: *berriro, argiro, nagiro, sendoro, ugariro, zintzoro...*

Baina adjektiboak ez ezik, izen gutxi batzuk adberbio bilakatu ditzake: *adiskidero, oparo, astiro*. Gainera, *-kiro* atzizki konplexua daukagun bezala, *-roki* atzizkiak ere adjektibo batzuk adberbio bihurtzen ditu: *argiroki, astiroki, berriroki, biziroki, handiroki*... Azken atzizki hau ohikoagoa omen da ekialdeko euskalkietan de Rijken (2008: 235) arabera.

Beste atzizki esanguratsu bat *-ka* da. Normalean aditzak bilakatzen ditu moduzko adberbio, baina PostS, izen eta zenbatzaile batzuek ere har dezakete. Aditzaren izaeraren araberakoa da *-ka* atzizkiak gehitzen duen esanahia. Batzuetan, pluraltasunarekin izango du zerikusia, adibidez: *saltoka, musuka, zotinka*. Beste batzuetan aldiz, denboran luzatuko du ekintza: *korrika, igerika, oihuka* (Berro 2017).

Bestalde, badira zenbait PostS moduzko adberbio gisa erabiltzen ditugunak. Hualderen (2003: 199) arabera, instrumental postposiziodun PostSak moduzko adberbio bezala erabiltzen ditugu predikatua modifikatzen dutenean: *oinez dator, buruaz apurtu*... Baina instrumentala ez da honela funtziona dezakeen PostS bakarra: *ustekabean, gustora, gogotik*.

Aipamen berezia merezi dute *-(r)ik* atzizkiarekin sortzen ditugun modu-adberbioek, oso ohikoak baitira: *bakarrik, azkenik, bigarrenik, biluzik, geldirik, pozik, alferrik*... Atzizki honen bitartez adjektiboak, izenak eta batez ere partizipioak bihurtzen ditugu adberbio (Euskaltzaindia 1991).

Kokapen sintaktikoari dagokionez, modu-adberbioen kokapen kanonikoa euskaraz aditzaren ezkerretara da, aditzaren ondo-ondoan (3a). Hala ere, de Rijkek (2008) adierazten duenez, fokalizazio edo topikalizazio prozesuren bat gertatu den perpausetan aditzaren eskuinetara topa ditzakegu ((3b) eta (3c)):

- (3) a) Liburua **astiro** irakurri dut.
- b) Orain arituko naiz **lasai**.
- c) Ordubete igaro ostean, gauzak lasaitu ziren **berriro**.

Azkenik, eratorpena ere darabilgu euskaraz erakusleak moduzko adberbio bihurtzeko, Hualdek (2003: 199) azaltzen duten bezala, *-la* atzizkia darabilgu (Bizkaiko zenbait azpieuskalkitan *-lan*): *honela, horrela, hala*.

3. Adjektibozko adberbioak

Euskaraz adjektiboak eratorpenaren bitartez nola adberbio bilakatzen ditugun ikusi dugu aurreko atalean, baina adberbializatzaille prozesu bereziena geratzen zaigu aztertzeke. Badira zenbait adjektibo inolako morfemaren laguntzarik gabe adberbio gisa erabil daitezkeenak eta atarian esan dudan bezala, hauei *adjektibozko adberbio* deituko diet, gaztelaniazko *adjetivos adverbiales* eta ingelesezko *adverbial adjectives* euskarara ekarriz.

Euskaltzaindiaren (1991) arabera, testuinguru soilak agintzen du kategoria aldaketa (adberbializazio) hori. Formari dagokionez, adjektibo itxura duten arren, ez dute izenik modifikatzen, aditza baino. Bestalde, adjektibozko adberbio hauek ez dira bateragarri edozein aditzekin, askotan aditzekin batera esanahi bereziak sortzen baitituzte, eta beste predikatu batzuekin batera, berriz, arrotz baitirudite. Bosquek (1990) esaten duen moduan, aditzek balio metaforikoak hartzen dituzte adjektibozko adberbioekin.

- (4) a) Sukalde **garbi** hori gurea bezalakoa da.
- b) Nik **garbi** ikusi dut penaltia zela.
- c) Mutil **zintzo** batek liburua ekarri dit.
- d) Aitor **zintzo** dabil.
- e) ? **Garbi** konpondu dut arazoa.

(4a) eta (4c) adibideetako *garbi* eta *zintzo* sintagmek izen bat modifikatzen dute, hau da, izenari buruzko informazio gehigarria ematen digute, eta alde horretatik, adjektiboak dira argi eta garbi. (4b) eta (4d) adibideetan, aldiz, inolako morfema edo atzizkiren laguntzarik gabe, itxuraz adjektiboak diren bi hitzak adberbioak direla adierazten digu testuinguruak., predikatu eta aditzarekin baitute lotura. Bestalde, (4e) adibideak erakusten du *garbi* adberbioa ez dela bateragarria *konpondu* aditzarekin edo kasurik onenean arrotz egiten zaigula belarrira. (4b)-ko *garbi ikusi*, aldiz, esapide baten moduan ulertzen dugu eta azaleko esanahiak baino zertxobait gehiago esaten digu.

Hona hemen de Rijkek (2008: 238) jasotzen duen adjektibozko adberbioen zerrenda: *aldrebes, alfer, apal, apropos, argi, arin, artez, azkar, bapo, berdin, biguin, bikain, bizi, bizkor, dotore, egoki, eragabe, eroso, erraz, garbi, garratz, gogor, gozo,*

jator, labur, larri, lasai, laster, leun, luze, makur, motel, ozen, sakon, sendo, txukun, zalu, zehatz, zintzo, zoli, zoro, zorrotz, zuhur, zuzen.

Zerrenda honetako adjektibozko adberbio ia guztiek *-ki* eratorpenezko atzizkia eraman dezakete, euren esanahia eta jokabide sintaktikoa aldatu gabe. Beraz, baliteke *-ki* morfema ezkutu edo hautazko baten aurrean egotea. De Rijken (2008) arabera ekialdeko euskalkietan *-ki* gordetzea adberbio hauetan normalagoa da; hegoaldekoetan omen dago ohitura handiagoa atzizkia erortzeko.

(5) a) **zorrotz** jokatu ohi dut.

b) **zorrozki** jokatu ohi dut.

Hala ere, de Rijken (2008) zerrendako adjektibozko adberbioen artean badira lau ez dutenak inoiz *-ki* atzizkia hartuko, nahiz eta adberbio bezala funtzionatzera igaro. Lau adjektibo horiek hauek dira: *bapo, egoki, laster* eta *zoli*. De Rijken (2008) arabera, *lasterki* aurki daiteke hiztegiaren batean, baina arraroa da erabiltzea. *Egoki*-ri dagokionez, *-ki* atzizkia dauka lexikalizatuta dagoeneko, eta gainera, *egokiro* adberbioa erabiltzen dugu.

Adjektibozko adberbio batzuekin gertatzen dena da bikoiztu egiten direla predikatuan agertzeko, adbidez, *labur-labur esan* edo *arin-arin egin*. Hala ere, baliabide honek ez du ematen ondorio sintaktikorik dakarrenik, semantikoak baino ez.

Amaitzeko, zenbatekotasuna adierazten duten adjektibo batzuk ere adjektibozko adberbiotzat interpreta daitezke de Rijken (2008: 237) ustez: *eskas, urri, oparo, ugari...*

4. Gaztelaniazko eta ingelesezko adjektibozko adberbioak

Euskal gramatikariek gutxi erreparatu diote moduzko adberbio mota berezi honi. Gaztelaniaz eta ingelesez, aldiz, azterketa sakonagoak burutu dira, hala nola, Fabregas & Alexeyenko-rena (2016) eta Bosquerena (1989). Beraz, komeni da bi hizkuntza hauetako gramatikariek gaiaren inguruan atera dituzten ondorio sintaktiko eta semantikoei erreparatzea, euskal adjektibozko adberbioei buruzko azterketa zehatzago bat egiteko. Atal honetan zehar, gaztelaniazko eta ingelesezko adjektibozko adberbioak bigarren mailako predikatu eta *-mente/-ly* atzizkidun moduzko adberbioekin konparatuko dira, bai sintaktikoki (4.1) bai semantikoki (4.2). Amaieran, 4.3 eta 4.4 ataletan, Fábregas eta Alexeyenko-ren (2016) analisisa eta kategorizazioa aurkeztuko dira.

Fábregas eta Alexeyenko-ren (aurrerantzean F&A) (2016) arabera, adjektibozko adberbioek zenbait antzekotasun erakusten dituzte *-ly* eta *-mente* atzizkidun moduzko adberbioekin eta *bigarren mailako predikatuekin* (ingelesez, *secondary predicates*). Bestalde, adjektibozko adberbioak ezin daitezke bi horiekin batera azaldu. Bosqueren (1990: 129) ustez, adjektibozko adberbioek adberbioen ezaugarri zenbait baino ez dituzte.

- (6) a) Martin respira [profundo / profundamente].

'Martinek arnas hartzen du [sakon/sakonki].'

- b) Frank passed the ball [fine / finely].

'Frankek baloia ondo pasa zuen.'

(6a) eta (6b) adibideetan ikus daitekeenez, adjektibozko adberbioek gazteleraz eta ingelesez *-ly* eta *-mente* atzizkidun moduzko adberbioekin txandakatu daitezke. Horregatik, F&A-k (2016) iradokitzen dute adjektibozko adberbioak ohiko moduzko adberbioak izan daitezkeela *-ly* edo *-mente* nulu batez sortuak. Hala ere, komeniko litzateke azaltzea adjektibozko adberbioek zergatik ahalbidetzen duten *-ly* / *-mente* atzizkiak nulu izatea, adberbioek normalean atzizki hauek gabe ezin funtziona dezaketenean:

- (7) a) Acabaré el examen [*difícil / difícilmente].

'Azterketa zail/zailki amaituko dut.'

- b) I will finish the exam [*hard / hardly].

Bestalde, bigarren mailako predikatuekin ere lotura daukate adjektibozko adberbioek:

- (8) a) Marta cortó muy [fino / fina] la manzana.

'Martak oso fin moztu zuen sagarra..'

- b) Leire desayunó [contenta / *contentamente].

'Leirek pozik gosaldtu zuen.'

(8a)-n ikusten da adjektibozko adberbioak ez direla bigarren mailako predikatuak; batik bat subjektuarekiko komunztadura faltak salatzen du hori. Hala ere, komunztadura

gora-behera, forma morfologikoak eta mailakatuak izateko posibilitateak nahasgarri egiten dituzte.

(8b) adibideak erakusten digu adberbioekin txandakatu ahal izatea ez dela bigarren mailako predikatuen ezaugarri orokor bat. Adjektibozko adberbioek, aldiz, ((6a)-n ikusi bezala) aukera dute moduzko adberbioak ordezkatzeko.

4.1. Jokabide sintaktikoa

Kokapen sintaktikoari dagokionez, F&A-ren (2016) arabera, ingelesezko eta gaztelaniazko adjektibozko adberbioak ezin ager daitezke aditzaren berehalako aurreko posizioan. (9a) eta (10a) adibideetan ikusten da bai moduzko adberbioak bai adjektibozko adberbioak posible direla aditzaren berehalako atzeko posizioan, baina aditzaren aurretik agertzeko aukera moduzko adberbioek baino ez dute, (9b) eta (10b)-n antzeman daitekeenez.

(9) a) Fui criticado [duro / duramente].

b) Fui [*duro / duramente] criticado.

‘[Gogor/gogorki] kritikatu izan nintzen.’

(10) a) I finished the exam [fast / rapidly].

b) I finished [*fast / rapidly] the exam.

‘[Azkar / azkarki] amaitu nuen azterketa.’

Bigarren mailako predikatu *ondoriozko* (ing. *resultatives*) zein *depiktiboak* (ing. *depictives*) ere aditzaren aurrean ager ezin daitezkeela diote F&A-k (2016). (11b) adibidean, *desnuda* ‘biluzik’ bigarren mailako predikatua aditzaren aurretik dagoenez, perpausa ez-gramatikala da. Jakina, bigarren mailako predikatua aposizio gisa agertzea gramatikala da (11c).

(11) a) Andrea salió desnuda de la ducha.

b) *Andrea desnuda salió de la ducha.

c) Andrea, desnuda, salió de la ducha.

‘Andrea biluzik atera zen dutxatik.’

Bestalde, aditzarekiko gertutasuna eskatu ohi dute adjektibozko adberbioek, eta zentzu honetan ere bigarren mailako predikatuetatik eta moduzko adberbioetatik urruntzen dira. Bosquek (1990: 132) adjektibozko adberbioen ezaugarri sintaktikoei erreparatuz, bi multzo bereizten ditu. Alde batetik, aditzarekin batera unitate idiomatikoak sortzen dituzten adjektibozko adberbioak lirateke. Bosqueren (1990) arabera, adjektibozko adberbio hauek ez dute aditza modifikatzen; horren ordez, unitate bakarra osatzen dute eta horregatik aditza eta adjektibozko adberbioa sintaktikoki bereiztea edo aldentzea ez da posible. (13)-ko adibideek erakusten dute *firme* ‘irmo’, *fino* ‘fin’ eta *infinito* ‘infinitu’ adjektibozko adberbioek ez dutela onartzen aditza eta euren artean sintagmarik tartekatzea edo beste baliabideren baten bitartez unitate idiomatikoa bereizita agertzea. Hala ere, F&A-k (2016) diotenez, hiztun batzuek onartu egiten dituzte hurrenkera hauek.

- (12) a) Hay que pisar el suelo firmemente.

‘Lurra irmoki zapaldu behar da.’

- b) Marta cortó la cebolla fina.

‘Martak tipula fin moztu zuen.’

- c) Se alegro, aunque no extremadamente.

‘Poztu zen, baina ez izugarriki.’

- (13) a) *Cuando hayas de pisar hazlo firme.

‘Zapaldu behar duzunean egizu sendo.’

- b) *Juana cortó la cebolla fino.

‘Juanak moztu zuen tipula fin.’

- c) *Se alegro, aunque no infinito.

‘Poztu zen, baina ez izugarri.’

(12a) eta (12b) adibideek erakusten dute bigarren mailako predikatuen eta moduzko adberbio arrunten eta aditzaren artean posible dela objektu zuzena tartekatzea. Gainera, (12c)-n bezala, besterik gabe aditza moduzko *-mente* atzizkidun adberbiotik bereiztea ere posible da. Ingelesez ere aukera dago objektu zuzena aditzaren eta adjektibozko adberbioaren artean tartekatzeko (ikus (10a)).

Beste alde batetik, sintaktikoki adberbioetatik gertuago lirakeen adjektibozko adberbioak genituzke. Adjektibozko adberbio hauek ez dute aditzarekiko horrenbesteko loturarik eta aukera dute zenbait perpausetan aditzetik bereizteko:

(14) a) volaban, pero no muy alto.

'egan egiten zuten, baina ez oso altu.'

b) trabajó, aunque no muy duro.

'lan egin zuen, baina ez oso gogor.' (Bosque 1990)

Aditzarekiko gertutasuna eta loturak alde batera utziz, ondorio garrantzizkoak ere lortzen dira adjektibozko adberbioek perpauseko gainontzeko argumentuekin duten harremana aztertzen denean. Adjektibozko adberbioak bigarren mailako predikatuetatik bereizteko antzematen den ezaugarriarik nabarmenena komunztadura baita, gaztelaniaz bederen. Gaztelaniazko adjektibozko adberbioa ez dator bat subjektuaren edo objektu zuzenaren zenbaki eta generoarekin (F&A 2016).

(15) a) Marta cortó fino la cebolla.

'Martak tipula fin moztu zuen.'

(15a) adibidean, *fino* adjektibozko adberbioa ez dator bat subjektuaren edo objektu zuzenaren generoarekin eta ez du zertan. Bigarren mailako predikatu bat izango bagenu toki berean *fina* topatuko genuke, hauek bai, perpaus gramatikal bat sortzeko komunztadura bete behar baitute. Ingelesez genero komunztadura erabiltzen ez denez, ezin daiteke ezer frogatu alderdi honetatik.

Gainera, adjektibozko adberbioek komunztadura ez erakustez gain, ez dute subjektua eta objektu zuzena perpausean agertzea behar, (16a) eta (16b) adibideek erakusten duten bezala. Bigarren mailako predikatuek, depiktibo zein ondoriozkoek, subjektua edo objektu zuzena presente egotea behar dute. Hortaz, F&A-k (2016) ondorioztatzen dute adjektibozko adberbioak agertzea posible dela aditz iragangaitzekin eta PrepS bat barne argumentutzat duten aditzekin. (17) adibidean *limpio / fair* 'garbi' adjektibozko adberbioa topatzen dugu aditz iragangaitza dagoen predikatu batean eta (18)-n *claro / clear* 'argi' adjektibozko adberbioa PrepS bat barne-argumentutzat eskatzen duen predikatuan.

(16) a) Llueve duro.

b) It is raining hard.

'Euria gogor ari du.'

(17) a) Jon juega limpio.

b) Steven plays fair.

'Jonek garbi jokatzen du.'

(18) a) Juanito habló claro sobre lo que paso.

b) Gary spoke clear about what happened.

'Garyk argi hitz egin zuen gertatutakoaz.'

Azkenik, adjektibozko adberbioak bigarren mailako predikatuetatik bereizteko, F&A-k (2016) adjektibozko adberbio moduan funtziona dezaketen adjektiboei erreparatu diete. Bigarren mailako predikatuek gazteleraz ezaugarri temporalei egiten diete erreferentzia beti (*stage-level predicates*). Adjektibozko adberbioak, aldiz, ez daude predikatu mota horietara mugatuak eta interpretazio indibidual iraunkorrak ere onartzen dituzte (*individual-level predicates*). (19a) eta (19b) adibideek, *ser* eta *estar* aditzak baliatuz, hauxe bera erakusten dute.

(19) a) La niña [estaba / *era] hambrienta cuando vino su madre.

'Neskatilla gose zen bere ama etorri zenean.'

b) gritar alto → el grito [*esta / es] alto.

'altu oihukatu → oihua altua da.'

(19a) adibideak erakusten digu bigarren mailako predikatuek gazteleraz arazoak dituztela interpretazio indibidual iraunkorrekin. (19b) adibideak berriz, iradokitzen du adjektibozko adberbioak zilegi direla interpretazio horiekin. Gainera, ikusten da ezaugarri temporalak edo egoerak adierazteko arazoak izan ditzaketela.

4.2. Jokabide semantikoa

Semantikoki, adjektibozko adberbioek zein moduzko adberbioek ekintzen parte-hartzaileei baino, ekintza berari buruzko ezaugarriak gehitzen dituzte. Hala ere, zenbait desberdintasun semantiko antzeman daitezke bien artean.

Hasteko, adjektibozko adberbioek aditzek adierazten dituzten ekintzen izaera fisikoa modifikatzeko balio dute. *-Ly* eta *-mente* atzizkidun moduzko adberbioek, aldiz, ezin dituzte prozesu fisikoak adierazten dituzten ekintzak modifikatu, baina bai irakurketa psikologikoak izan ditzaketenak.

(20) a) *cavar* [hondo / ?hondamente]

'[sakon/sakonki] zulatu'

b) *lamentar* [?hondo / hondamente]

'[sakon/sakonki] damutu'

(F&A 2016)

(20a) adibideko *cavar* 'zulatu' aditzak dimentsio fisikoak ditu, beraz *hondo* 'sakon' adjektibozko adberbioak ekintzaren prozesu fisikoari buruzko ezaugarri bat ematen digu. *Hondamente* 'sakonki' moduzko adberbioak, aldiz, ez du esanahi fisikorik adierazteko aukerarik. (20b)-ko *lamentar* 'damutu' aditzarekin ordea, *hondamente*-k 'sakonki' ekintzaren ezaugarri psikologiko bat gehitzen du eta *lamentar* 'damutu' aditzak ez duenez prozesu fisikorik adierazten, badirudi *hondo* 'sakon' ez dela zilegi.

Horregatik, adjektibozko adberbioak askotan aditzen izaera semantiko eta ekintzen dimentsio posibleen arabera agertu ahal izango dira ala ez (F&A 2016).

Bestalde, aditzek adierazten duten ekintzaren izaeraren arabera, adjektibozko adberbio berberak interpretazio edo esanahi desberdinak har ditzake. Adibidez, *bajo* 'baju' adjektibozko adberbioak modifikatuko duen aditzaren arabera esanahi desberdinak hartuko ditu.

(21) a) *volar bajo*

'baju hegan egin'

b) *hablar bajo*

'baju hitz egin'

(21a)-ko *volar* ‘hegan egin’ aditzarekin *bajo* ‘baju’ adjektibozko adberbioak adierazten du garraio bat altuera txikian ari dela hegan. (21b)-n *bajo*-k ‘baju’, berriz, bolumenarekin du zerikusia.


Argudio semantiko hauek, F&A-ren (2016) arabera, erakusten dute adjektibozko adberbioak moduzko adberbioak baino mugatuago daudela aditzekin konbinatzerakoan. Bosquek (1990: 130) esaterako, gaztelaniazko adjektibozko adberbioak hiru taldetan banatzen ditu, aditzekin konbinatzeko duten gaitasunaren arabera. Lehen taldean, adjektibozko adberbio askeenak egongo lirateke, hau da, ia edozein aditzekin konbina daitezkeen adjektibozko adberbioak, adibidez: *primero* ‘lehenengo’ eta *rápido* ‘azkar’. Bigarren mailan, adjektibozko adberbio mugatuagoak topatuko ditugu. *Alto* ‘altu, *bajo* ‘baju’, *claro* ‘argi’, *quedo* ‘bare’ eta *recio* ‘sendo’ bezalakoek hizketari lotutako edozein aditz (*hablar* ‘hitz egin’, *chalar* ‘solastu’, *cantar* ‘abestu’) modifika ditzakete adibidez, eta *fuerte* ‘gogor’ edo *firme* ‘irimo’ adjektibozko adberbioak aditz andana batekin konbinatu daitezke: *andar* ‘ibili’, *dar* ‘eman’, *pisar* ‘zapaldu’, *golpear* ‘jo’, *apretar* ‘estutu’. Azkenik, hirugarren mailako adjektibozko adberbioek aditz gutxi edo bakar batekin konbinatzeko aukera baino ez dute: *seguro* ‘seguru’, *cierto* ‘egiazko’ (*saber algo* ‘zerbait jakin’); *limpio* ‘garbi’ (*jugar* ‘jokatu’); *distinto* ‘ezberdin’ (*pensar* ‘pentsatu’); *fino* ‘fin’ (*hilar* ‘irun’, *llover* ‘euria egin’); *fijo* ‘finko’ (*mirar* ‘begiratu’); *duro* ‘gogor’ (*trabajar* ‘lan egin’, *golpear* ‘golpear’).

4.3. *Analisi sintaktiko-semantikoa*

Atal honetan, adjektibozko adberbioen kokapen sintaktikoa aztertuko da. Izan ere, kokapen sintaktiko horrek baldintzatuko du hein handi batean adjektibozko adberbioak osagarri ala adjuntu bezala ulertzeko erabakia. F&A-ren (2016) arabera adjektibozko adberbioak osagarriak dira gaztelaniaz eta ingelesez, eta horrek zenbait datu azaltzen lagunduko du.

F&A-ren (2016) ustez, adjektibozko adberbioa sintaktikoki hobeto azaltzeko egitura sintaktiko zehatzagoetara jo behar dugu. Horretarako, Ramchand-en (2008) ASren analisia erabiltzen dute:


(22)



*Init(iation)*² buru ez dinamiko bat da, aditzak adierazten duen ekintzaren egile edo agentea txertatzen duena (INITIATOR). *Proc(ess)* buru dinamiko bat da, ekintza bat definitzen duena. *Proc* sintagmak hartzen duen osagarriaren arabera (UNDERGOER), ekintza telikoa edo ez-telikoa izango da. *Res(ult)* buru estatikoa da, aditz telikoekin erabiltzen dena eta prozesuaren amaieraren egoera definitzen du (F&A 2016). Aditz guztiek ez dituzte hiru buru funtzionalak behar.

F&A-k (2016) adjektibozko adberbioak *procS*-ren osagarri gunean kokatzea defendatzen dute. Beraz, adjektibozko adberbioak ez lirateke adjuntuak, osagarriak eta argumentuak baizik. *Proc* sintagmak adierazten duen ekintzaren argumentuak lirateke adjektibozko adberbioak. (23) egitura sintaktikoak erakusten du *fino* 'fin' adjektibozko adberbioa *Proc* sintagmaren osagarri gunean egongo zela Ramchanden (2008) egituran.

² Ramchand-en (2008) ingelesezko deiturak eta beren laburdurak erabiliko ditut lan honetan euskaratu gabe.



Analisi honen aldeko argumentu eta ebidentzia linguistikoak berehala antzematen dira, alde handia baitago adjektibozko adberbioak argumentu ala adjuntu bezala interpretatzerakoan. Gainera, *proc*Sren izaerak ere adjektibozko adberbioak hobeto ulertzen lagunduko digu.

Hasteko, anaforetan adjektibozko adberbioen jokabidea aurkezten dute F&A-k (2016) ebidentziatzat:

- (24) a) *John sliced the bread thin, and Mary did so thick.

‘Jonek fin moztu zuen ogia, eta Mariak ere egin zuen horren fin.’

- b) John sliced the bread thinly, and Mary did so thickly.

‘Jonek finki moztu zuen ogia, eta Mariak ere egin zuen finki.’

- (25) a) *Juan picó fino la cebolla, pero María lo hizo grueso.

‘Juanek fin moztu zuen tipula, baina Mariak lodi egin zuen.’

- b) Juan picó la cebolla finamente, pero María lo hizo gruesamente.

‘Juanek finki moztu zuen tipula, baina Mariak lodiki egin zuen.’

(F&A 2016)

(24) eta (25) adibideek adjektibozko adberbioak argumentuak direla garbi erakusten dute. *Do so* eta *lo hizo* anaforek ordezkaten dituzten elementuen artean ez dago adjunturik, argumentuak baino ez. Anaforek, bai gaztelaniaz bai ingelesez, *slice thin* eta *picó fino* ‘fin moztu’ predikatuei unitate moduan egiten diete erreferentzia eta horregatik, perpausa ez-gramatikal bihurtzen da beste adjektibozko adberbio bat gehitzean. Ondorioz, argumentu jokabidea dute, ez adjuntu jokabidea. Bestalde, *-ly* eta *-mente* atzizkidun moduzko adberbioek adjuntu jokabidea daukate, anaforek ez baitiete erreferentzia egiten.

Bestalde, adjektibozko adberbioak osagarriak diren aldeko beste argudio bat aditza fokalizatuta topatzen dugun perpausetan antzeman dezakegu.

(26) a) Breathing [deep /deeply] is what John was doing.

‘[Sakon/sakonki] arnasa hartu da Jon egiten zegoena.’

b) Breathing is what John was doing [*deep / deeply].

‘Arnasa hartu da Jon sakon/sakonki egiten zegoena.’

(27) a) Respirar [hondo / hondamente] es lo que hacía Juan.

b) Respirar es lo que hacía Juan [*hondo / hondamente]. (F&A 2016)

(26) eta (27) adibideetan ikus daiteke aditza fokalizatzerakoan berarekin doan adjektibozko adberbioa mugitu behar dela, bestela, perpaus ez-gramatikal batekin egingo dugu topo. Moduzko adberbioak adjuntuak direnez ez dute zertan aditzarekin batera fokalizatu.

Esan bezala, F&A-ren (2016) ustez, adjektibozko adberbioek *procS*ren osagarri gunea betetzen dute. Beraz, adjektibozko adberbio bat agertzeko, perpausuan *procS* bat agertzea beharrezkoa da eta honek adjektibozko adberbioak baldintzatu eta mugatuko ditu aditzak modifikatzerako orduan. *ProcS* bat perpausuan agertzeko aditza ezin daiteke estatikoa izan, *proc* burua dinamikoa baita. Honek esan nahi du, adjektibozko adberbioak ezin daitezkeela erabili aditz estatikoekin, (28)-n *claro* eta *clear*-i ‘argi’ gertatzen zaien bezala.

(28) a) [entender/odiar/saber /importar] [*claro / claramente]

‘[ulertu/gorroto/jakin/axola izan] [argi / argiki]’

b) [understand/hate/know /matter] [*clear / clearly]

Azkenik, adjektibozko adberbioek *procS*ren osagarri gunean agertuko liratekeen beste sintagma batzuk oztopatzen dituzte. F&A-ren (2016) arabera, adjektibozko adberbioek objektu zuzenak oztopa ditzakete (29b), eta baita zenbait *resS* ere (30b). *ResS* hauek, (22)-ko Ramchand-en egitura sintaktikoan azaldu dudan bezala, *procS*ren osagarri gunea betetzen dute, adjektibozko adberbioen gune berbera alegia. Horregatik, (30a) gramatikala da, baina (30b) ez. Moduzko *finamente* ‘finki’ adberbioarekin ez dago eragozpenik *resS* txertatzeko, izan ere, moduzko adberbioa ez da osagarria adjuntua baizik.

(29) a) pensar la respuesta

‘*erantzuna pentsatu*’

b) *pensar claro la respuesta

‘*erantzuna argi pentsatu*’

c) pensar claro en la respuesta

‘*erantzunean argi pentsatu*’

(30) a) cortar la cebolla en rodajas

‘*tipula xaflightan moztu*’

b) cortar fino la cebolla (*en rodajas)

‘*tipula xaflightan fin moztu*’

c) cortar la cebolla finamente en rodajas

‘*tipula finki xaflightan moztu*’

Adjektibozko adberbioen kokapen sintaktikoa eta honen aldeko datuak ezagututa, gaztelaniazko eta ingelesezko adjektibozko adberbioei kategoria bat ezartzea baino ez da falta. Kategoria hori zilegi izan beharko da *procS*ren osagarri gunean eta orain arte azal dutako datuekin koherentzia erakutsi beharko du.


4.4. Kategorizazioa

Adjektibozko adberbioen jokabide semantikoa eta kokapen eta jokabide sintaktikoak azaldu eta gero, kategoria bat proposatzea baino ez da geratzen. Orain arteko guztian oinarrituta, F&A-k (2016) proposatzen dute hiru kategoria hauetako batean kokatu behar direla gaztelaniazko eta ingelesezko adjektibozko adberbioak: AdjS, PrepS edo DetS. Lehenengo biek zenbait datu azalgaitz dakartzate, hortaz, DetSk direla proposatuko dute. DetS bezala berraztertzean, gainera, adjektibozko adberbioen zenbait jokabide hobeto azal daitezke.


Hasteko, F & A-ren (2016) ustez, ezin daitezke AdjSk izan. Aditz iragankor batekin agertzen direnean, objektu zuzenarekin (UNDERGOER) bat egin beharko luketelako adjektibozko adberbioek numero eta generoari dagokionez, eta 4.1. atalean azaldu den bezala hau ez da betetzen gazteleraz.

Adjektibozko adberbioak PrepS bezala azaltzeko, F&A-k (2016) adjektibozko adberbioak modifikatzen duen izen nuludun PrepS bat proposatzen dute, era berean preposizio buru nulu bat duen sintagma bat. Gaztelaniaz maizago agertzen dira adjektibozko adberbioak ingelesez baino, eta honek lotura izan dezake ingelesez izen bat ezabatzeko dagoen ezintasun handiagoarekin. Hala ere, gaztelaniaz izen bat ezabatzea ez da zilegi izena PrepS baten osagarri denean. Beraz, adjektibozko adberbioak PrepSak balira ez da argi geratzen zergatik litzatekeen zilegi testuinguru honetan izena ezabatzea. (31)-ko egitura sintaktikoak irudikatuko luke hipotesi hau:


(31)



-Ly eta -mente atzizkidun moduzko adberbioak, diferentzia bakar batekin, honela azaltzen dituzte F&A-k (2016). PrepSak dira, preposizio buru nuludunak eta izena modifikatzen duen AdjS bat dute. Adjektibozko adberbioekiko diferentzia bakarra hauxe da (ikus (32)): moduzko adberbioen izena ez litzateke nulua, ISren buru -ly edo -mente atzizkia lukete.



Hortaz, F&A-k (2016), ikusita beste bi aukerek arazoak ematen dituztela, adjektibozko adberbioak DetSak direla proposatzen dute. IS nuludun DetSak. Aditzak ahalbidetzen du DetSek izenik ez izatea eta gainera, izenaren interpretazio semantikoa zehazten du aditzak. Adjektibozko adberbioak izena modifikatzen du eta baita semantikoki mugatu ere:



Egile hauek dioten moduan, Det burua ere hutsik agertu behar da aditzaren eta izenaren arteko lotura lexikoa bermatzeko (ikus (33)).

Adjektibozko adberbioak DetSak direla onartzean zenbait datu hobeto azaltzen dira F&A-ren (2016) ustez. Esaterako, adjektibozko adberbioak aditzekin batera baino ezin direla agertu. Moduzko adberbioek (-ly eta -mente atzizkidunek) beste kategoria batzuetako sintagmak modifikatu ditzakete, hala nola, ISak, AdjS edo AdbSak edo PrepS. Adjektibozko adberbioek, aldiz, ezin ditzakete sintagma hauek guztiak modifikatu, DetS-ek ezin dezaketen bezala. AdjS edo PrepS modura azalduko bagenu adjektibozko adberbioak, ezin izango genuke azaldu zergatik ezin duten gutxienez ISrik modifikatu:

(34) a) la claramente vencedora

'argiki irabazlea'

b) *la claro vencedora

'argi irabazlea'

(36) a) claramente de Madrid

'argiki Madrilgo'

b) *claro de Madird

'argi Madrilgo'

(37) a) claramente inútil

'argiki ezgauz'

b) *claro inútil

'argi ezgauz'

Bestalde, adjektibozko adberbioak izen nuludun DetSak direla onartzean, 4.1. atalean azaldutako komunztadura falta beste era batera interpreta daiteke. Adjektibozko adberbioak izena modifikatzen du azken finean, baina hau hutsik aurkitzen duenez gaztelaniazko komunztadura lehenetsia hartuko du: singular maskulinoa. Bosqueren (1990) arabera, genero, numero eta kasu komunztadurarik gabeko adjektiboak adberbio moduan erabiltzen dira bretoiera, pertsiera, txinera eta alemana bezalako hizkuntzetan.

Gainera, danieraz eta suedieraz flexio neutroaz zehazten diren adjektiboak adberbio bezala erabiltzen dira.

F&A-k (2016), datu hauetan guztietan oinarrituta ondorioztatzen dute adjektibozko adberbioak ez direla ulertu behar kategoría hibrido bat bezala, hau da, ez dituztela adjektiboen eta adberbioen ezaugarriak nahasten eta batzen, baizik eta, adjektibo atributibo hutsak direla. Antzematen zaizkien adberbio ezaugarriak modifikatzen dituzten izenaren izaera nuluaren ondorio baino ez dira, eta baita aditzaren osagarri izateko hartzen duten egitura sintaktiko konplexu horren ondorio ere.

4.5. *Rápido eta igual adberbioen kasua*

Amaitzeko, F&A-k (2016) erakusten digute badirela zenbait adberbio adjektibozko adberbioen oso antzekoak diruditenak, baina jokabide desberdin batzuk dituztenak. Bi adberbio horiek *rápido* ‘azkar’ eta *igual* ‘berdin’ dira. Bi adberbio hauek, adjektibozko adberbioek bezala, ez dute *-mente* atzizkia behar, aditzekin baino ezin dira batu eta ezin dira aditzaren aurretik agertu. Hala ere, zenbait jokabide desberdin erakusten dituzte. (37a) eta (37b) adibideek erakusten dute adjektibozko adberbio bat jadanik daukan perpaus batean agertu ahal direla. Gainera, (37b)-n bezala, objektu zuzena tartekatu daiteke aditzaren eta adberbioaren artean, adjektibozko adberbioek ezin dezaketenean. Azkenik, aditzetik ere urrundu daitezke, ikus (39a).

(37) a) Juan habló alto rápido.

‘Juanek altu azkar hitz egin zuen.’

b) Juan picó fino la cebolla igual.

‘Juanek fin moztu zuen tipula berdín.’

(38) a) Cavar la zanja es lo que Juana hizo [rápido / igual].

‘Zanga zulatu da Juanak egin zuena [azkar / berdín].’ (F&A 2016)

Gainera, adjektibozko adberbioek ez bezala, *rápido* eta *igual* formek ez dute ia muga semantikorik eta aditzek ez dituzte lexikoki hautatzen. *Rápido* edozein aditz dinamikorekin erabili daiteke eta *igual* aditz estatikoekin erabiltzea ere posible da. (F&A 2016). Azkenik, *rapidamente* ‘azkarki’ eta *igualmente* ‘berdinki’ adberbio pareek esanahi

bera dute, orokorrean adjektibozko adberbioek eta *-mente* atzizkidun adberbioek bete-betean partekatzen ez dutenean.

5. Euskal adjektibozko adberbioak

F&A-k (2016) gaztelaniazko eta ingelesezko adjektibozko adberbioei buruz ondorioztatutakoa ikusita, saia gaitezen orain euskarakoak azaltzen. Euskaraz bigarren mailako predikatu eta adjektibozko adberbioen arteko konparaketak ez du ondorio garbirik ateratzea ahalbidetzen. Hala ere, 2.2.1.1. atalean azaldu dudan bezala, moduzko adberbioak atzizki bidez sortzeko aukera ugari ditugu eta hauetaz balia gaitzke adjektibozko adberbioen izaera semantiko eta sintaktikoak hobeto ulertzeko, F&A-k (2016) *-mente/-ly* atzizkidun adberbioak baliatu dituzten antzera.

Euskal adjektibozko adberbioen atal honetan, lehenik eta behin jokabide sintaktiko (5.1.) eta semantikoak (5.2.) izango ditut aztergai, adjektibozko adberbioen eta moduzko adberbioen artean desberdintasunik dagoen ala ez identifikatzen saiatzeko. Ondoren, 5.3. atalean, datu linguistiko batzuk aurkeztuko ditut adjektibozko adberbioak argumentuak ala adjuntuak diren erabaki ahal izateko. Amaitzeko, aurreko ataletako datuetan oinarrituta, euskal adjektibozko adberbioak zein kategoriatan sartu behar diren proposatuko dut.

5.1. Jokabide sintaktikoa

Euskaraz badirudi adjektibozko adberbioek malgutasun handia dutela perpausetan kokapen ezberdinetan agertzeko, *-ki* atzizkidun moduzko adberbioek bezala.

- (39) a) Apaizak [biguin / biguinki] jo zuen kanpaia.
b) Ikasleak jarduera amaitu zuen [erraz / errazki].
c) Mikelek [laster/lasterki] oparia ekarri digu.
d) Jokin (jator) ibili zen atzo (jator).

(39a) eta (39b) adibideek erakusten dute aditzaren aurreko zein atzeko kokalekuetan agertu daitezkeela. Gogoratu, 4.1. atalean erakutsitakoaren arabera, gaztelaniaz eta ingelesez *-mente / -ly* atzizkidun moduzko adberbioek baino ez dutela

aditzaren aurretik zein atzetik agertzeko aukera, adjektibozko adberbioak aditzaren atzeko posizioan bakarrik agertzen diren bitartean. Euskaraz zentzu honetan adjektibozko adberbioek moduzko adberbioek bezala funtzionatzen dute. (39c)-n objektu zuzena tartekatzen da adjektibozko adberbioaren eta aditzaren artean eta badirudi guztiz zilegi dela hau egitea, ingelesez bezala, baina ez gaztelaniaz (ikus (13b)).

Gaztelaniaz genero komunztadura baliatzen dute F&A-k (2016) adjektibozko adberbioak bigarren mailako predikatuetatik bereizteko. Euskaraz bigarren mailako predikatuekin genero komunztadurarik erabiltzen ez denez, ezin ondoriorik atera. Hala ere, esan beharra dago adjektibozko adberbioek euskaraz ez dutela inoiz determinatzaile hartuko ezta numero komunztadurarik eramango.

F&A-ren (2016) arabera (4.1. atala), gaztelaniazko adjektibozko adberbioek, objektu zuzen edo subjektuarekiko komunztadura ez betetzeaz gain, ez dute bi argumentu hauek perpausean agerikoak izatea behar.

(40) a) Zuzen jokatu dut.

b) Irakasleak azterketari buruz garbi hitz egin zuen.

Euskaraz ere adjektibozko adberbioek ez dute subjektu eta objektu zuzenaren presentzia behar eta horregatik, zilegi dira aditz iragangaitzekin (40a) eta baita argumentutzat PostS bat duten aditzekin (40b).

5.2. *Jokabide semantikoa*

Atal honetan, adjektibozko adberbioak zein predikaturekin ager daitezkeen izango dut aztergai. Adjektibozko adberbioak baldintzaturik daude eta ezin dira edozein predikaturekin agertu, izan ere, ekintzak modifikatzen dituzte zuzenean, ekintzen parte-hartzaileak eta irakurketa psikologikoak alde batera utziz gehienetan.

Euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez bezala, aditzak adierazten duen ekintzaren ezaugarriek, esanahiak eta dimentsioek baldintzatuko dute adjektibozko adberbio bat zein aditzekin den bateragarri eta zeintzuekin ez.

Hasteko, badirudi aditz psikologikoen arazo gehiago dituztela adjektibozko adberbioekin agertzeko. *Damutu, izutu, interesatu, bururatu* bezalako aditzekin adjektibozko adberbio gutxiagok funtzionatzen dute. Gaztelaniaz eta ingelesez bezala,

adjektibozko adberbioak aditzaren barne-semanticari lotuta doazen prozesu fisikoak modifikatzen topatzea ohikoagoa baita. (41a)-n *damutu* aditz psikologikoarekin arrotz suertatu ahal zaizkigun adjektibozko adberbio horiek, ez dute batere eragozpenik *zulatu* aditzarekin agertzeko. *Zulatu* aditzak prozesu fisiko bat adierazten baitu. Hala ere, (41c) adibideko *arin* adjektibozko adberbioak ez du arazorik aditz psikologikoak modifikatzeko.

- (41) a) [?sakon / ?gogor / *artez] damutu
b) [sakon / gogor / artez] zulatu
c) arin [damutu / izutu / interesatu / bururatu]

Baina gaztelaniaz eta ingelesez *-mente/-ly* atzizkidun adberbioek ezaugarri psikologikoak baino ez dituzte adierazten, eta euskaraz badirudi ezaugarri hauek adieraz ditzaketan arren, ezaugarri fisikoak ere adieraz ditzaketela:

- (42) a) [sakonki / gogorki / arinki] zulatu

Bestalde, adjektibozko adberbioek askotan ez dute euren oinarrizko adjektiboaren esanahia zehatz-mehatz gordetzen. *Garbi ikusi*, *argi esan* eta *zuzen jokatu* predikatuetan *garbi*, *argi* eta *zuzen* hitzen esanahi lehenetsiak desitxuratu edo moldatu egiten dituzte, aditzek iradokitzen dituzten ekintzen izaerek. Gainera, gaztelaniaz eta ingelesezko adjektibozko adberbioekin gertatzen den bezala, adjektibozko adberbio berberak esanahi desberdinak har ditzakete aditzaren arabera. (43a)-n *altu* adjektibozko adberbioak bolumenarekin du zerikusia, (43b)-n, aldiz, altuerarekin.

- (43) a) altu hitz egin
b) altu jaurti

Azkenik, adjektibozko adberbioek modifikatzen dituzten aditzei erreparatzea komeni da, euskaraz ere adjektibozko adberbioak ezin baitira edozein aditz edo predikaturekin agertu. Hona hemen hautatu ohi dituzten aditzen zerrenda bat: *heldu*, *ibili*, *geratu*, *ikusi*, *hitz egin*, *egin*, *atera*, *mintzatu*, *ikusi*, *bizi*, *etorri*, *joan*, *jokatu*, *ekarri*, *amaitu*... Aditz hauen guztien barne-bilakaerari dagozkien ezaugarri lexikoak antzekoak dira eta ondorio garbi batera garamatzate. Akzio-moduei dagokienez, adjektibozko adberbioak *jarduera*, *lorpen* eta *burutzapenekin* ager daitezke, baina *egoerekin* konbinatzeko zailtasun gehiago dituzte.

- | | | |
|------|--|-------------|
| (44) | a) [*erraz/*argi/*larri/*gogor] gaixorik egon | EGOERA |
| | b) [azkar/dotore/bikain/lasai] korrika egin | JARDUERA |
| | c) erretratu bat [lasai/arin/eroso/dotore] margotu | BURUTZAPENA |
| | d) [dotore/zintzo/apal/astiro] helmuga zehakatu | LORPENA |

Jarduerak, burutzapenak eta lorpenak akzio-modu dinamikoak dira, hau da, ebentualtasunean zehar faseak antzeman daitezke predikatu hauetan. Beraz, badirudi adjektibozko adberbioek akzio-modu dinamikoak behar dituztela, izan ere, *egoerak* ez-dinamikoak dira, eta (44a)-k erakusten duen bezala, adjektibozko adberbioak ez dira posible predikatu mota honetan. F&A-ren (2016) arabera ere adjektibozko adberbioak ezin dira aditz estatikoekin agertu, izan ere *proc* burua dinamikoa da eta adjektibozko adberbioak *procS* behar du.

5.3. *Analisi sintaktiko-semanticoa*

F&A-k (2016) gaztelaniazko eta ingelesezko adjektibozko adberbioak ASren osagarriak direla proposatzen dute. Euskarara hipotesi hori ekartzean, aldeko nahiz kontrako datuak topatzen dira.

Euskal adjektibozko adberbioak aditzaren osagarriak balira, esperoko guneke gune sintaktiko bera bete ohi duten sintagmak oztopatzea. Aditz iragankorrekin objektu zuzen bat agertu ohi da aditzaren osagarri gunean, adjektibozko adberbioak bete beharko lukeen tokia betetz. Hala ere, posible da euskaraz objektu zuzen bat eta adjektibozko adberbio bat perpaus berean topatzea (45) adibideetan ikus daitekeen bezala. Baina (45a) eta (45b) hurrenkerek kanonikoagoak dirudite, eta (45c) arrotzago suertatzen da edo objektu zuzena fokalizatuta dagoela uler daiteke. Beraz, badirudi adjektibozko adberbioa gailentzen zaiola objektu zuzenari, aditzaren osagarri gunean agertzerako orduan.

- (45)
- | | |
|----|--------------------------------------|
| a) | Mikelek erantzuna azkar pentsatu du. |
| b) | Mikelek azkar pentsatu du erantzuna. |
| c) | Mikelek azkar erantzuna pentsatu du. |

Bestalde, anaforek eta fokalizazio prozesuek gaztelaniaz eta ingelesez adjektibozko adberbioak osagarriak direla erakusten digute (4.4.). Baina, euskaraz

antzeko prozesuetan, adjektibozko adberbioek ez dute moduzko adberbioen jokabide desberdinik erakusten.

(46) a) Marrazainak penaltia ikusi zuen, baina ez [garbi / garbiki].

(47) a) Jokatu da Jon [zintzo / zintzoki]egiten zegoena.

b) [Zintzo / zintzoki] jokatu da Jon egiten zegoena.

Fokalizazio prozesuetan ((47a) eta (47b)) adjektibozko adberbioak ez du derrigorrez aditzarekin batera mugitu behar, gaztelaniaz eta ingelesez derrigorrezkoa denean. Euskaraz adjektibozko adberbioak adjuntuak izan daitezkeen seinale, *-ki* atzizkidun adberbioak bezalaxe.

5.4. Kategorizazioa

F&A-k (2016) gaztelaniazko eta ingelesezko adjektibozko adberbioak DetS-k direla proposatzen dutela ikusi dugu. Orain, euskal adjektibozko adberbioen jokabide semantiko eta sintaktikoak aurreko ataletan aurkeztu ondoren, hona hemen kategorizazioari buruzko nire proposamena.

Euskaraz adjektibozko adberbioek eta *-ki* atzizkidun moduzko adberbioek ez dute alde semantiko eta sintaktiko handirik erakusten. Beraz, egokiena dirudi kategoria berekoak direla proposatzea.

F&A-k (2016) hiru aukera posible ematen dituzte ingelesezko eta gaztelaniazkoentzat (3.1.3.): AdjS, PrepS eta DetS. Euskaraz adjektibozko adberbioak AdjS ezin dira inondik inora izan, 2.1. atalean adjektiboei buruz azaldutako guztiagatik. Beraz, adjektibozko adberbioak adjuntuak ala osagarriak diren erabakitzea litzateke gakoa, PostS ala DetS bezala definitzeko.

Adjektibozko adberbioak PostS-ak balira esperoko genuke ASez aparte beste sintagma batzuk ere modifikatu ahal izatea, gutxienez ISak. Baina, badirudi ezin dituztela modifikatu ez IS-ak (48a), ez AdjS (48b) edo PostS-ak (48c).

(48) a) *garbi irabazlea

b) *arin zoroa

c) *dotore Bilboko

Datu hau azaltzeko irtenbide bakarra adjektibozko adberbioak DetS-ak eta beraz, osagarriak direla onartzea ematen du. Baina, *-mente* eta *-ly* atzizkidun adberbioak F&A-
rentzat (2016) adjuntuak dira duda izpirik gabe eta PrepS izanda aukera dute beste
sintagma batzuk modifikatzeko (ikus (34a), (35a) eta (36a)). Euskaraz, ordea, *-ki*
atzizkidun moduzko adberbioek ezin dute aditza ez den beste sintagmarik modifikatu,
adjektibozko adberbioek bezala:


- (49) a) *garbiki irabazlea
b) *arinki zoro
c) *dotoreki Bilboko

Hortaz, euskal adjektibozko adberbioa PostS bat dela proposatu nahi dut,
moduzko adberbioak bezala. Gainera, sintaktikoki adjuntuak dira, nahiz eta aditzarekiko
gertutasunak osagarriak izan daitezkeela iradoki.


Baina, zerk ahalbidetzen du inolako morfemarik gabe jatorriz adjektiboak direnak
beste sintagma bat bilakatzea? Adjektibozko adberbioek *-ki* atzizki nulu bat daukatela
proposatzea ematen du aukerarik onena. Izan ere, 3. atalean azaldu dudana bezala,
adjektibozko adberbio ia guztiek daukate *-ki* atzizkidun adberbio bikotekidea. Gainera,
semantikoki eta sintaktikoki ere ez dute alderik erakusten.

(50a) eta (50b) egitura sintaktikoak konparatuz, garbi ikusten da moduzko
adberbioen eta adjektibozko adberbioen arteko diferentzia bakarra *-ki* atzizkiaren egoera
dela. Adjektibozko adberbioen kasuan *-ki* nulu bat topatzen baitugu. Bestalde, postposizio
burua eta determinatzaile burua nuluak dira bai batentzat bai bestearentzat.

- (50) a)



b)



Adjektibozko adberbioak adjuntu eta PostS bezala interpretatzeak orain arte azaldutako datu asko azaltzen ditu, hala nola, aditzetik bereizi ahal izatea, aditzaren aurrean zein atzean kokatu ahal izatea, beste osagarri batzuk ez oztopatzea...

Azkenik, analisi honen alde, moduzko adberbio gisa erabiltzen ditugun PostSak lirake. 2.2.1.1. atalean aurkeztu ditudan PostSen adibideen artean hauek daude: instrumentalak (*oinez*), partitiboak (*biluzik*), ablatiboak (*gogotik*), adlatiboak (*gustora*) eta inesiboak (*ustekabea*). PostS hauek moduzko adberbioak dira adjektibozko adberbioak bezala, eta sintaktikoki ez dirudi jokabide desberdinik erakusten dutenik. Adjektibozko adberbioekiko eta *-ki* atzizkidun moduzko adberbioekiko desberdintasun morfolo­giko bakarra erakusten dute: adjektibozko adberbioen eta *-ki* atzizkidun moduzko adberbioen postposizio burua nulua da; aldiz, PostS hauek ageriko postposizio buru bat dute.

6. Ondorioak

Lanean zehar azaldu dudana bezala, euskal adjektibozko adberbioak PostSak dira jokabide sintaktikoari eta semantikoari erreparatuz gero. Gainera, ez dutenez *-ki* atzizkidun moduzko adberbioekiko alderik erakusten, hauek bezala aditzaren adjuntuak direla proposatu dut lan honetan.

Gaztelaniazko eta ingelesezko adjektibozko adberbioentzat, berriz, F&A-k (2016) beste analisi eta kategorizazio proposamen bat aurkezten dute. Gaztelaniazko eta ingelesezko adjektibozko adberbioak DetSak dira, aditzaren osagarriak. Izen nuludun DetSak dira. Izen nulu hori adjektibozko adberbioak modifikatzen du eta Det burua ere nulua izango da izenaren eta aditzaren arteko lotura lexikoa bermatzeko. Ondorio honetara heltzeko, F&A-k (2016) adjektibozko adberbioak *-ly/-mente* atzizkidun moduzko adberbioekin eta bigarren mailako predikatuekin konparatu dituzte. Konparaketa horrek agerian uzten baititu adjektibozko adberbioek dituzten jokabide semantiko eta sintaktiko diferentek gaztelaniaz eta ingelesez: aditzaren aurretik agertzeko ezintasuna, aditzetik edonola bereizi ezin izatea, perpauseko argumentuekiko komuntadura eza, edozein predikatu ezin modifikatzea... Moduzko *-ly/-mente* atzizkidun adberbioak PostS eta adjuntu bezala azaldu dituzte F&A-k (2016).

Euskarari dagokionez, ezin da antzeman adjektibozko adberbioetan osagarri jokabiderik. Horregatik, proposatu dut *-ki* atzizkidun moduzko adberbioak eta adjektibozko adberbioak PostSak eta adjuntuak izan daitezkeela. Moduzko *-ki* atzizkidun adberbioek eratorpenezko atzizkiaren bitartez ahalbidetzen dute hasierako adjektiboa adberbio gisa erabiltzen. Beraz, ikusi dugun bezala, baliteke adjektibozko adberbioek *-ki* atzizki nulu bat izatea, izan ere, adjektibozko adberbio ia guztiek daukate *-ki* atzizkidun moduzko adberbio bikotea.

Hortaz, adjektibozko adberbioak izen nuludun PostSak direla ematen du eta *-ki* atzizkidun moduzko adberbioek aldiz, *-ki* atzizkia lukete izen buru bezala. Post eta Det buruek nuluak izan behar dute bientzat.

Aipamenak

- Bosque, Ignacio. 1989. *Las categorías gramaticales*. Madrid: Síntesis.
- Berro, Ane. 2017. *The syntax and semantics of KA, a cumulative suffix in Basque*. eskuizkribua, UMR 7023 CNRS / Paris 8 eta UPV/EHU.
- de Rijk, R.P.G. 2008. *Standard Basque. A Progressive Grammar*. Cambridge MA: The MIT Press.
- Euskaltzaindia. 1991. *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-I (EGLU-I)*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Euskaltzaindia. 2002. *Euskal Gramatika Laburra (EGLA)*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Arantzazu, Elordieta. "Adberbioa eta adberbio sintagma", *Sareko Euskal Gramatika (SEG)*, [Interneten eskuragarri: www.ehu.eus/seg; azken bisita 2017.03.22].
- Fábregas, Antonio & Sascha Alexeyenko (agertzear). *Between Adverbs and Adjectives: Invariable Adjectives in Spanish and English. Journal of Linguistics*.
- Hualde, José Ignacio. 2003. "Morphology". In José Ignacio & Jon Ortiz de Urbina (arg.), *A grammar of Basque*. Berlin: Mouton de Gruyter. 119-368.
- Ramchand, Gillian. 2008. *Verb meaning and the lexicon*. Cambridge: Cambridge University Press.